

## KANALAK

Guk erabiliko dugun kanala online da gehienbat, beraz kanal zuzena da. Webgune bat irekiko dugu, eta bertan hainbat bereizketa izango ditugu.

Orrialde nagusian gure enpresaren deskribapen txiki bat izango dugu, eta bertatik beste azpiorrialde batzuetarako estekak izango ditugu:

1. Eskaintzen ditugun autokarabana eta furgonetak
2. Egutegi bat ibilgailu bakoitza noiz dagoen libre ikusteko
3. Prezioa sasoiaren arabera eta paketearen arabera
4. Guk eskaintzen ditugun bidaia motak
5. Galdetegi bat
6. Gurekin harremanetan jartzeko atal bat

### ORRIALDE NAGUSIA

Atal honetan gure enpresa zertan datzan azalduko dugu. Enpresa bat gara, non furgonetak eta autokarabanak alokatzen ditugun eta bidaia bezeroak eskatzen digunaren arabera antolatzen dugun. Gure ibilgailuak gordetzen ditugun lokalaren barruan bulego txiki bat dugu. Lokalaren helbidea, telefono zenbakia eta e-maila jarriko ditugu.

#### 1. ESKAINTZEN DITUGUN AUTOKARABANA ETA FURGONETAK

Furgoneta eta autokarabana bakoitzaren ezaugarriak deskribatuko ditugu. Bertan jarriko dugu furgoneta edo autokarabana bakoitza zein pertsona talderi gomendatuko diogun, eta barnealdea eta kanpoaldearen argazkiak erantsiko ditugu.

#### 2. EGUTEGI BAT IBILGAILU BAKOITZA NOIZ DAGOEN LIBRE IKUSTEKO.

#### 3. PREZIOA SASOIAREN ARABERA.

Ibilgailuaren eta sasoiaren araberako prezioak antolatuko ditugu. 3 sasoi izango ditugu; baxua,erdikoa eta altua.

DENBORALDI ALTUA: uztailaren 1etik irailaren 15era, 7 egun gutxienez alokatu behar dira.

ERDIKO-DENBORALDIA: apirilaren 1etik ekainaren 30era, 5 egun gutxienez alokatu behar dira.

DENBORALDI BAXUA: azaroaren 1etik martxoaren 31era, 3 egun gutxienez alokatu behar dira.

Gutxienezko fiantza autokarabanan 700€-koa da eta furgonetan 500€-koa.

#### 4. ESKEINTZEN DITUGUN BIDAIA MOTAK.

- Mendikoa.
- Hiriak bisitatzekoa.
- Gastronomikoa.
- Pertsonalizatua.

Web orrian ondo azalduta egongo da bakoitza zertan datzan.

## 5. GALDETEGI BAT.

Bezero bakoitzari egokia den bidaia aukeratzeko galdetegi bat prestatzen diogu, eta ateratzen diren emaitzekin gehien komeni zaion bidaia zein den antolatzen diogu.

## 6. GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO.

Telefono mugikor bat eta gmail bat utziko dugu gurekin harremanetan jarri ahal izateko, eta sare sozial batzuk utziko ditugu informazio berria publikatzeko eta momentuan ikusteko.(Facebook,instagram...)

Gainera, telefonoz-ko zerbitzua eskaintzen dugu. Bestalde, nahi duenak ere whatsapp zerbitzua eskaintzen dugu.

## LOKALA:



Lokala furgonetak gordetzeko izango da.

270 metro karratu, 13 metroko fatxada, 5 metroko ate abatibletaliko da.

Solairuartera alboetan du. Biltegirako, garajerako edo beste edozein jardueratarako egokia.

Alokairuaren prezioa 675€-koa da hilabeteko.